



LEGEZKOTASUN TXOSTENA, ERAKUNDEEN JARDUERAN ETA KUDEAKETAN EUSKARAK DUEN GARAPEN-MAILA EBALUATZEKO, EGIAZTATZEKO ETA AITORTZEKO SISTEMA ARAUTZEN DUEN DEKRETU PROIEKTUAREN INGURUKOA.

LT – LGAKZ 2022/109
DNCG_DEC_1807/22_11

I. AURREKARIAK

Kultura eta Hizkuntza Politikako aholkularitza juridikoak erakundeen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatzeke, egiaztatzeke eta aitortzeke sistema arautzen duen dekretu proiektuari buruzko nahitaezko Legezkoatsun-txosten eskaera egin du Tramitagune tresna informatikoaren bidez. Dekretu proiektuaren testuaren zirriborroaz gain, txosten eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau helarazi du:

- Aurretiazko kontsulta publikoa.
- Aurrekontuetako zerbitzuak emandako txostena.
- Justifikazio memoria.
- Dekretua egiten hasteko prozedura abiatzen duen Agindua.
- Dekretu proiektuari alde aurreko onarpena ematen dion Agindua.
- Saileko aholkularitza juridikoaren txosten juridikoa.
- Sail ezberdinetako alegazioen txostenak.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena.
- Hizkuntza, Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak egindako txostena, generoaren araberako eraginaren gainean.
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu saileko Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaleko Zuzendaritzak egindako txostena.
- Nahitaezko txosten eta alegazioen ondorengo memoria osagarria.

Era berean, Tramitagune izapidetza elektronikorako plataforman ikus daiteke Emakunderi eskatu zaiola otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legeak (haren 19. artikuluari 1/2022 Legeak emandako idazkeran) aurreikusitako txostena, nahiz eta txosten hau egiten ari garen unean, oraindik ere ez den txosten hori espedientean ageri.

Txosten hau Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.a) artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera egin da; izan ere, artikuluko horren arabera, Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokio legezketasunari buruzko txostena egitea, xedapen orokorretako proiektuetan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren (EABJ) irizpena beharrezkoa ez denenean. Bide berean, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 legearen 3.aren arabera ez dagokio EABJri aztertzea dugun proiektuaren inguruko irizpena ematea.

Aurrekoarekin lotuta, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 15.1.c artikulua gaitzen du txosten hau egiteko eskumena; izan ere, artikuluko horrek Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari esleitzen dio legezketasunaren barne-kontrola, besteak beste, eduki arauemailea duten eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarentzat erreserbatuta ez dauden erregelamendu-xedapenen proiektuena.

II. OBJEKTUA

Dekretuaren xedea da, bere izenburuak aipatzen duen moduan, erakundeen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatzeko, egiaztatzeko eta aitortzeko sistema arautzen duen dekretu bat egitea, orain arte indarrean dagoen sistema eraberrituz, hau da, maiatzaren 30eko 162/2017 dekretuak, aurreikusten duen sistema eraberritzea.

Espedientean dagoen justifikazio memoriak ezarritakoaren arabera, maiatzaren 30eko 162/2017 Dekretuak Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eta bera lortzeko egin beharreko ebaluazio-

prozesua, bai eta kanpo-ebaluazioaren zerbitzua jaso nahi zuten erakundeek egin beharreko eskabidea eta bete beharreko baldintzak, arautzen zituen. Eta oraingo dekretuaren bidez, erakundeen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatu, egiaztatu eta aitortzeko sistemaren oinarria jaso nahi da, eta horren garapena hizkuntza-politikaren esparruan dagokion sektorean eskumena duen zuzendariaren ebazpen bitartez osatuko da.

III. IZAPIDETZEA

Aztertutako proiektuak izaera orokorreko xedapen izaera du, ordenamendu juridikoa berritzen duena, alegia, eta honek dekretu forma hartzen du. Beraz, xedapen honen kontzeptuaren eta izaeraren arabera, izapidetzari Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea aplikatu behar zaio, 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Kontuan hartu behar da, ordea, txosten hau egiten ari garen unean dagoeneko indarrean dela 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena. Hala eta guztiz ere, aipatutako legearen Xedapen Iragankorrean ezarritakoari jarraiki, lege hori indarrean izan aurretik hasitako prozedurak lehengo araudiaren arabera izapidetu behar dira amaitu arte. Horrenbestez, abenduaren 22ko 8/2003 legea da aplikagarri aztertzen ari garen dekretu proiektuaren izapidetzan.

Izapidetza, oro har, lege horren araberakoa izan dela esan dezakegu, eta izapidetzean legeak ezarritako txosten eta irizpenak jaso direla, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena izan ezik, otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legeak, martxoaren 3ko 1/2022 Legeak eragindako aldaketa kontuan hartuta, aurreikusten duena

Izapidetzari buruzko gainontzeko gaietako dagokienez, sailaren txosten juridikoan ezarritakoa berresten dugu.

IV. ESKUMENA

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluen arabera, euskarak, Euskal Herrian berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du gaztelaniarekin batera eta

Autonomia Erkidegoko Erakunde komunek bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte. Halaber, testu horren 10.17 artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela kultura arloan.

Horren ildotik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun arloak finkatzen dituen irailaren 6ko Lehendakariaren 18/2020 Dekretuaren 14. artikulua araber, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagozkio hizkuntza-politikaren eta euskararen sustapenaren inguruko egitekoak eta jardun arloak. Horrez gain, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2020 Dekretuaren 13.2.g) artikuluekin bat etorriz, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak honako zeregin hau du:

“Hizkuntza-politikan eskumena duten botere publikoak elkarlanean aritzeko neurriak dinamizatu eta bultzatzea, horretarako behar diren ekimen guztiak sustatuta eta erakundearteko elkarlana eta koordinazioa areagotzen duen beste edozein formula ikertuta.” Era berean dekretuaren 16.2.p) artikuluari jarraiki, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak bere zeregin artean dauka *“Entitate publiko eta pribatuen jardueretan euskararen kudeaketa, aitortpen eta ebaluazio sistemari lotutako erreminta askotarikoak aztertu eta garatzea indarrean dauden kalitate-ziurtapenen sistemetan jasotako parametroetan oinarrituta.”*

V. DEKRETU PROIEKTUAREN EDUKIA

Dekretu proiektuaren edukiaren inguruan, kontuan izan behar da izapidetza hasi zenetik eta beharrezko txosten eta irizpen guztiak jaso ondoren, dekretu proiektuak zenbait aldaketa izan dituela. Aldaketa horiek, 2022ko irailaren 7ko memoria osagarrian daude jasota, eta oro har jasotako aldaketa guztiak legezketasunaren ikuspuntutik aproposak direla esan dezakegu. Honenbestez aztertuko dugun proiektuaren testua aldaketak egin ondorengo izango da.

Testuaren eduki zehatza azaldu aurretik, eta Saileko txostenak era egokian azaltzen duen moduan, ohartarazi behar da dekretu proiektuaren edukia orokorregia dela, eta hori zehazteko prozedura guztia saileko sailburuorde edo zuzendari ezberdinei esleitzen diela.

Kontuan izanda dekretuaren helburu nagusia ziurtagiriak eskuratzeko prozedurak malgutzea eta berriak sortzea dela, ulergarria da indargabetzen duen dekretuaren zehaztasun maila ez izatea dekretu honek. Hala eta guztiz ere, dekretu-proiektua orokorregia izan daiteke, gure ustez, segurtasun juridikoaren kaltetan.

Ziurtagiri eta ebaluazio mota berriak sortzeko aukera irekita utzi nahi du sailak dekretu honen bidez, baina ez du horiek sortzeko prozedurarik ezartzen; hau da, gaia zuzendari eta sailburuordearen ebazpen bidez egingo dela dio testuak hainbat artikulutan, horretarako prozedura eta mugak ezarri gabe.

Hori dela eta, agian komenigarria litzateke, segurtasun juridikoaren mesedetan, zuzendarien edo sailburuordearen esku gelditzen den arau garapena nolakoa izan daitekeen adieraztea, edota arau garapen hori bideratzeko nolabaiteko marko orokorra ezartzea.

Dekretu proiektuak honakoak ditu eduki: zioen azalpena, 8 artikulua, 5 xedapen gehigarri, 3 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

1. artikulua dekretuaren helburua zehazten du, euskararen aitortza sistema arautzea helburu duela ezarriz.
2. artikulua euskararen kudeaketaren aitortza sistemaren hartzaileak zeintzuk diren zehazten ditu. Artikulu honen azterketan bat gatoz sailak emandako txostenarekin. Artikulu honen 3. azpi-atalean, hizkuntza-politikaren esparruan dagokion sektorean eskumena duten "zuzendarien ebazpen bitartez", hartzaileei buruzko zehaztapenak garatuko direla dio, pluralean. 73/2021 dekretuaren arabera Hizkuntza-Politikarako sailburuordetzan hiru zuzendaritza daude eta bakoitzak badu bere jardun arloa; hori dela eta, komenigarria litzateke, zehazki zein zuzendaritzari esleitzen zaion jarri gabe (zuzendaritzen izenak eta jardun arloak aldagarriak izan daitekeelako), zuzendaritza baten barnean dagoen jardun arlo zehatz bati erreferentzia egitea. Kontrakoa zuzendaritza ezberdinen arteko eskumen arazoak ekiditeko. Gainera, emango den balizko ebazpen horren segurtasun juridikoari begira, nahitaezkoa da zein eskumenetan oinarritzen den ezartzea.

3. artikulua euskararen kudeaketaren aitortza sistema ezartzen du. Artikulu hau da aurreko arauketa goitik behera aldatzen duena. Aurreko dekretuan, hau da 162/2017 dekretuan, aitortza sistema goitik behera arautua zegoen, aldiz oraingoan nolabaiteko arau-delegazio bat ezartzen du, sistemaren arauketa, sailburuordearen eta zuzendarien etorkizuneko ebazpenen esku utziz. Arestian esan bezala, nahiz eta arauketa orokor bat izan helburu, zehaztu beharko litzateke maila, ziurtagiri eta aipamen berezi horiek sortzeko oinarrizko markoa. Batez ere, etorkizuneko ebazpen horiek dekretuarekin kontraesanetan sartzea ekiditeko. Horrekin batera, ziurtagiri ezberdinak lortzeko ebaluaketa sistemaren oinarrizko arauketa bat ere komenigarri litzateke, euskararen kudeaketaren aitortza-sistema arautzea bada artikulu honen helburua.

4. artikulua aitortza agirien erabilera arautzen du.

5. artikulua euskararen kudeaketaren Aitortza Sistemaren Jarraipen Batzordea sortzen du. Bere egiteko nagusia aitortza-sistemaren koordinazioa da, artikulu honen arabera, baina ez du zehazten koordinazio horren mesedetan zein eskumen edo egiteko zehatz izango dituen.

6. artikulua artezkaritza kontseilua arautzen du. Saileko txostenak esandakoaz gain, kontuan izan behar da aurreko dekretua indargabetuta, artikulu hau dela artezkaritza kontseilua arautuko duena. Hori horrela, aipatu beharrekoa da artezkaritza kontseilua kide anitzeko organo bat dela; eta, urriaren 1eko 40/2015 legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa ezartzen duenak (SPAJren legea), Atariko Tituluaren bigarren kapituluaren hirugarren atalean kide anitzeko organoei buruz ezarritakoa derrigorrez bete behar duela dekretuak. Baina gogorarazi behar dugu baita ere, 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena, onartu dela eta, beraz, kide anitzeko organoei buruz lege horrek ezarritakoa ere bete beharko dela nahitaez.

Zentzu horretan, Euskal Sektore Publikoaren legearen 18 artikulua honako hau ezartzen du:

"18. artikulua.– Kide anitzeko organoak.

1.– Oinarrizko legeriaren arabera sor daitezkeen kide anitzeko organoetz gain, kide anitzeko organoak sortu ahal izango dira aholkularitza- edo partaidetza-funtzioak betetzeko, betiere instituzioarteko koordinazio- eta elkarlan-mekanismoak edo era horretako mekanismo publiko-pribatuak ez badira eraginkorrak. Kide anitzeko organo horiek proposamen-, aholku-, jarraipen- edo kontrol- funtzioak izango dituzte.

2.– Administrazio aholku-emailea bi modutara egituratu ahal izango da: administrazio aktiboari dagokionez autonomia organiko eta funtzionala duten organo espezifikoen bidez edo administrazio aktiboak laguntza juridikoa emateko dauzkan zerbitzuen bidez.

Halakoetan, zerbitzu horiek ezingo dute mendekotasun hierarkikorik izan, ez organikoa ez funtzionala,

kontsultagai diren xedapenak landu edo egintzak burutu dituzten organoekin, eta ezingo dute organo haietatik jaso ezein jarraibide, gidalerro edo oharpenik. Gainera, berme horiek betetze aldera, modu kolegiatuan jardungo dute.

3.– Aholkularitza- edo partaidetza-funtzioak betetzeko kide anitzeko organo baten sortze-arauak eduki hau izango du gutxienez:

a) Azalpena: zergatik behar den. Esleitutako funtzioak ez daudela bikoiztuta ziurtatu beharko da.

b) Zer xede eta helburu dituen.

c) Nola integratzen den Administrazioan, edo zer hierarkia-mendekotasun duen.

d) Zein den bere osaera eta zer irizpide erabiltzen den lehendakaritzako titularra eta gainerako kideak izendatzeko.

e) Zer proposamen-, aholku-, jarraipen eta kontrol-funtzio gomendatzen zaizkion, eta zer beste funtzio egozten zaizkion.

f) Hala badagokio, zer kreditu jartzen zaion funtzionatzeko.

4.– Betiere, salbu kontrakoa justifikatzen denean kide anitzeko organoa sortzeko araua izapidetzeko espedientean, kide anitzeko organoa atxikitzen den Administrazio orokorreko sail edo sailtako edo entitateko giza baliabide eta baliabide materialen bidez egingo dira organoaren administrazio- eta kudeaketa-lanak.

5.- Urtero, kudeaketa-memoria idatzi beharko da, eta publikoki emango dira horren kontuak. Administrazio orokor eta instituzionalaren barruan sortutako kide anitzeko organo guztiei aplikatuko zaie arau hau, nahiz artikulu honek arautzen ditueni nahiz oinarritzko legea zuzenean aplikatuta arautzen direnei. Organoak jarduerarik ez badu, ea berriro formulatu behar den ala azkendu egin behar den erabaki beharko da.

6.- Kide anitzeko edozein organoren osieran Administrazio orokorreko sail batzuetako edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateetako kideak badaude, dekretu bidez eman beharko da organoak sortzeko araua. Bestela, organoa zein sailetan sortzen den, sail hartako titularraren agindu bidez sortuko da.

7.- Kide anitzeko organoak sortzen direnean, sorreraren publikotasun aktiboa egin beharko da. Gainera, kide anitzeko organoaren sorrerak organo horri eskumenak esleitzen badizkio beste organo batzuek erabaki beharreko kontuen gaineko nahitaezko txostenak egiteko edo beste organo batzuen jardueraren gaineko jarraipen- eta kontrol-lanak egiteko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da sortze hori.

8.- Aurreko arau horiek aplikatu beharko zaizkie organismo autonomoetako kide anitzeko organoei, zuzenbide pribatuko ente publikoetakoei eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoetakoei."

7. artikulua bikain ebaluatzaileen kluba arautzen du. Artikulu honen azterketan bat gatoz, oro har, aholkularitza juridikoak egindako ohartarazpenekin, nahiz eta 2022ko iraileko memoria osagarriak adierazten duen moduan uste dugun ez dela derrigorrezkoa ordezkapen erregimenik ezartzea.

8. artikulua homologazioa arautzen du; honek bide ematen dio, beste erakunde publiko edo erakunde batzuek euskaren garapen mailaren ziurtapena egiteari. Kontuan hartuta, ebaluazio sistema eta ziurtapen mailak zehazteke daudela, homologazioei bide eman aurretik beharrezkoa izango da sistema bera arautzea.

Xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile, xedapen gehigarri eta azken xedapenei buruz ez dugu ohartarazpenik egiteko.

Egindako ohartarazpenak salbu, esan dezakegu aztertutako dekretu proiektuak behar bezala betetzen dituela SPAJren legeak eta ESPren legeak ezarritako betekizunak. Horrenbestez, adierazitako zehaztapenak eginda, aldeko irizpena ematen diogu legezkotasun azterketara aurkeztu diguten dekretu proiektuari.

VI. ONDORIOA

Hori da igortzen dudan txostena. Edonola ere, Zuzenbidean hobeto oinarrituta legokeen beste edozeinen menpe jartzen dut.